

## Konfesioa

Euskaraz ere badira horrelako kondairak: Lardizabalena, etab.

Ik. Biblia; Salbamen-historia; Hermeneutika.

### Konfesioa

1. Sin.: Sinesbidea. \*Fede-aitormena esan nahi du. Bereziki erabiltzen da, protestanteek fede-aitormena egiteko XVI. eta XVII. mendeetan sorturiko formulak adierazteko. Augsburg-eko Konfesioa da zaharrenetakoa: "Confessio augustana" edo luterotarrarena; kalbindarrek berena sortu zuten: "Confessio helvetica"; eta eskoziar Eliza erreformatuak ere bai: "Confessio scotica". Ik. Luteranismoa; Kalbinismoa.

2. Eliza unibertsalaren barnean, gorputz nagusitik edo elkarrengandik irakasbidez, ihardunbidez eta erakundez bereizita dauden kristau-elkarteak edo komunioak. Horrela deitzen dira, fede-aitormena edo konfesioa berezia duelako bakoitzak.

Eliza Katolikoak ez du bere burua konfesiostat hartzen, Kristoren Eliza bakartzat baizik, nahiz eta hainbat konfesiorelitasuna aitortzen dien. Ik. Denominazioa; Komunioa, 2.

3. Erlijio-soziologian zera adierazten du: erdimailako klase sozialeko lagunek osaturiko erlijio-erakunde liberala, inola ere unibertsala izateko asmorik ez duena. Erlijio-aniztasuna onetsi ezezik, sarritan hobetsi egiten du. \*Sekta eta \*eliza kontzeptuetatik bereizten du horrela konfesioa \*erlijio-soziologiak. Ik. Erlatibismoa.

4. Sin.: Aitortza. Nork bere \*bekatuak, jendaurrean nahiz bakarka ezagutzea eta deklaratzeta, eta hedapenez konfesioko-sakramentua berorren osotasunean. Liturgia latinoaren azken eraberrikuntzaren ondoren penitentzi sakramentua hobetsi da hori adierazteko. Ik. Penitentzi(ako) sakramentua.

### Konfesioologia

Teologi jakintzetan berria da hori, kristau-herria osotzen duten elkarteak, Eliza handiak, Eliza libreen eta \*sekta ezberdinen arteko konparaziozko azterketa egiten duena. Kristau-ekumenismoaren bidean garrantzi handia hartu du horrelako ikasketa teologikoak.

Ik. Ekumenismoa; Konfesioa, 2; Eliza libreak; Elkartea.

### Konfesionalismoa

Edozein kristau-konfesio edo \*denominazioak ukan lezakeen elizatasun-monopoliorako joera, bestelako Konfesioen edota Eliza uni-

bertsalaren parean bere \*tradizioa gehiegi balietsiz eta haien aurrean bere burua bere baitan itxiz. \*Ekumenismoaren aurkako joera da, beraz.

Ik. Konfesioa, 2; Elizaren katolikotasuna; Katolizismoa.

### Konfirmazioa

Ik. Sendotza.

### Konfuzianismoa

Antzinateko Txinan bi filosofi joera izan ziren, biak elkarren kontrakoak: Bata, konfuzianista edo eskolatuena, positiboa eta ekinbidezkoa; bestea, daoistena, metafisikoa eta mistikoa.

Mendebaldean sorturiko hitza da konfuzianismoa; txinatarrak Ju Chia deitzen dute eskola hori, hots, "letradunen eskola". Jakitunak eta pentsatzaileak ziren aldi berean letradun horiek, eta Antzinako Sei Klasi-koak ikasten eta aztertzen saiatzen ziren; horrela, txinatar kultur tradizioari atxikitzen zitzaizkion.

Txinatar tradizio ortodoxoaren gordeztailea zen eskola hori; eta filosofia ofizialtzat ezagutu zituen txinatar estatuak konfuzianisten irakatsiak, hezkuntzarako nahiz eguneroko bizirako.

Konfuzio (Kong-Fuzi) (K.a. 551-479) ezagutzen du eskola horrek bere aita eta eratzaitzat. Ez zuen berak ezer izkiriatu utzi; baina antzinako idazkien zentzua berriztatu zuen bere azalpenen bidez, eta haiek iruzkintzearekin batera, bere zenbait gogaiera berezi ere gorputzu zuen. Edonolako gogamendu metafisiko nahiz moral edo mistikoren aspian kezka politikoak eta sozialak daude Txinan. Gizarteko harmonia, Konfuzioaren eritziz, "bost harreman" hauetatik dago: hots, subiranoaren eta menpekoaren, gurasoen eta umeen, senide nagusiaren eta senide txikiaren, senarraren eta emaztearen, adiskideen arteko harremanetik. Ez dago horiek ahazterik; bestela \*Zeruaren agindua urratzen da.

Zeruak seinalaturiko bideari (dao-ri) jarraitzeko, gizakiak berari bereizi zaion lekuan bete behar ditu zintzoki bere eginbideak. Horretarako beharrezkoa du gauzen izatasuna ahalik eta ongien ezagutzea. Horrela zuzentasunez (\*yi-z) jokatu ahal izango du eta zeremonien (li-aren) esangura ulertu ahal izango du.

Izakien artean, berauen mailari eta karguari begiratzat, gorde beharreko harremanen adierazpena besterik ez bait dira zeremonia horiek; izan ere, izakien arteko hierarkiak eta elkarrekiko begirunea gordetzeak gizar-

teko harmonia mamitu eta oinarritu egiten dute.

Bere izenaren araberakoa behar du izana edozein gauzak; izen bakoitzak, alabaina, mugaturik dauka bere baitan gizarte-harremantetan gauzari dagozkion erantzukizunak eta betebeharrak. Ik. Izena.

Hala ere, zuzentasuna eta zeremonia hutsak kontzeptu hotzak besterik ez dira, bihotza edo giza sentikortasuna (jen) ere horietan jartzen ez bada; horrek, alabaina, ematen die berotasuna gizarteko harremanei.

Familian ikasten da sentikortasun hori; horregatik kontu handia egin zion Konfuziok seme-alaben gurasoenganako atxekimendu eta begiruneari; bere gurasoek begirunez hartuz, norik bere ingurukoak ere begirunez hartzen ikasten bait du, baita norberaren aberria eta gizaki guztiak hartzen ere. Zuzentasunarekin batera altruismoa irakasten zuen Konfuziok.

Bestalde, giza izatea ontzat zeukan; horrek behar duena, egoki lantzea da.

Arao sozialak oso hartua zeukaten Konfuzio; subiranaren dohainak aztertu zituen bereziki. Benetako jauna izan behar du subiranoak; prestutasun moral handikoa izan behar du; eta bere bertutearen eraginez gobernatu behar du, bere boterearen indarrez menpekoak behartu baino gehiago. Santuarena da gobernu ideala; baina gizartea gainbehera doanean ez da santurik agertzen; orduan jakintsuak prestatu beharra dago gobernatzeko; horiek ahaleginez lor dezakete, santuek berez dutena. Ongia ongiaren zabaltzailea da; horregatik jakintsuak bere ingurua eraberritzen du bertan egote hutsez. Jakintsuak ez du bere onura bilatzen, ezta bere erosotasuna, aberastasuna, ohoreak ere; gizon-emakume arruntentzat dira horiek denak. Gehiegia gauza guztietan da txarra; bertute bikaina, "aldazinezko erdigunean" dago beti.

Konfuzioren jarraitzaileen artean, Mentzi (Mentzio) (K.a. 371-289) eta Xunzi (Hsü Tzu) (K.a. 298-238) aipatu behar dira.

Konfuzioren ideiak psikologi eta metafisika-aldetik oinarritzen saiatu zen Menzi. Horren eritziz, berez da ona giza izatea; baina bi alderdi ditu: goikoa (gizakiak bereziki duena) eta behekoa. Denek goiko alderdia ondo lantzen saiatuko balira, denek izango lirerateke jakintsu handiak. Horren ustez, geure baitan ditugu gauza guztiak. Altruismoz jokatzu, norberekeria desegiten dute gizon-emakumeek, eta unibertsoarekin bat egiten.

Xunzi-ren eritziz, ordea, giza izatea gaiztoa da jatorriz; landu beharra dago,

zere neketik eta lantzetik bait dator edozein on. Xunzi-k moraltasunari buruz emater duen azalpena utilitarista da. Ez da hori teori zalea.

Ik. Erlijioa eta erlijioak; Etxe(ko) gurtza; Daoismoa; Etika eta erlijioa.

José Pérez Remón  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

### Kongregazioa

Ik. Kofradia; Erlijioso-kongregazioa.

### Kongregazio erromatarrak

Eliza Katolikoaren Erromako kuriako organismo edo \*dikasterio beterazle nagusiak dira, administrazio zentral arrunta eramatean dutenak. Bakoitzaren burua kardinala prefektua da. Kuriaren 1967ko eraberrikuntzaren ondoren bederatzia dira kongregazioak.

Ik. Sede santua; Kuria.

### Kongregazioa, erlijioso-

Ik. Erlijioso-kongregazioa.

### Kongregazio misiolariak

Ik. Misio-kongregazioak.

### Kongregazionalismoa

Ik. Eliza kongregazionalistak.

### Konjurioa

1. Sin. Araoa. \*Erlijio-fenomenologian orokorki erabiltzen da, kalteren bat uxatzeko edo eragin gaizkileren bat suntzitzeko egiten den erritua bera edota hitzak adierazteko. Sarritan kutsu magikoa dute erri-to-hitzek. Ik. Araoa; Magia.

2. Sin. Exortzismoa. Ik. Exortzismoa.

### Konklabea

Aita santu berria hautestekoan, kardinalak bildurik egon ohi diren leku itxia adierazten du. Hautesleak honelako itxituran (giltzapean edo) egotera behartzeko ohitura 1271. urtetik dator.

Kardinalak horretarako egiten duten baztarraldia bera ere konklabea deitu ohi da.

Ik. Aita santua; Kardinala.

### Konkordatua

Sede santuaren eta estatuaren artean egin ohi duten itun orokor eta iraunkorra, beren arteko harremanak eta auziak konponbideratzeko. Akordio-modu honek lehen baino